2019ko abenduan erregistratutako langabezia

2019ko abenduan zehar LANBIDEko bulegoetan %0,34 langabe gehiago erregistratu dira, langabe kopurua 114.162 da. Aurreko urteetako eboluzioekin alderatuz, urte honetako abendukoa ez da onena izan. Hala ere, krisi aurreko urteetako (2005, 2006 eta 2007) eboluzioen antzekoa da.



	abe-05	abe-06	abe-07	abe-08	abe-09	abe-10	abe-11	abe-12	abe-13	abe-14	abe-15	abe-16	abe-17	abe-18	abe-19
Series1	149	13	150	5899	747	2910	420	-1986	-7326	-2958	-1848	-1527	-746	-1825	385

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 5.512 pertsonetan murrizten da langabezia. Jaitsieraren erritmoa gelditu egin da.



- **SEXUA**

Azken hilabetean langabezia emakumezkoen artean murriztu egin da (-% 2,15) eta gizonezkoen artean hazi (% 3,59). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen langabezia % 3,47 murriztu da eta emakumezkoena % 5,49. Gaur egun langabeen % 55,2 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia muturreko adin tarteetan murriztu da. 24 urte azpikoen artean % 5,72 murriztu da eta 55 urte gorakoen artean % 0,42. Hazkunde handiena 35-44 urte artekoen tartean izan da (% 2,13). Urte arteko saldoan, 24 urte azpikoen tartean izan ezik, lan gabezia, adin tarte guztietan murriztu da; gehien 35-44 urteko adin tartean murriztu da (-% 8,68). 54 urtez gorakoen artean langabezia motel murrizten da, lan munduratzearen zailtasunak agerian utziz biztanleria helduaren artean. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Abenduan zehar, murrizketa handiena zerbitzu sektorean izan da (-% 0,59); lehen sektorean ere langabzeia murriztu egin da (-% 0,48). Hazkunde handiena industrian izan da (% 7,08); eraikuntzan % 4,89 hazi da. Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 3,48 murriztu da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa, % 7,89ko jaitsiera, eta lehen sektorekoa (% 7,89ko jaitsiera) nabarmentzen dira.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handienak izan dituzten jarduerak hauek izan dira: txikizkako merkataritza (-481), eraikuntzetako zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak (-225), egoitzetako laguntza (-183) eta etxebizitzak langile enplegatzaile gisa (-156). Langabezia hazkunde handiena erregistratu dutenak hauek izan dira: enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (+801) eta produktu metalikoen fabrikazioa (+272).

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe laburreko langabezia 798 pertsonatan hazi da eta epe luzekoa 413 pertsonatan murriztu. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (% 9,43) epe laburrekoen artean baino (% 0,42). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Abenduan langabezia hiru lurraldeetan hazi da: Araban % 0,36, Gipuzkoan % 1,03 eta Bizkaian % 0,01.

Urte arteko saldoari erreparatuz Arabak erregistratu du eboluzio onena % 5,41ko jaitsierarekin; Bizkaiak jarraitzen dio % 4,53ko jaitsierarekin eta azkenik Gipuzkoan % 4,28 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 194 pertsonatan murriztu da langabezia, Gasteizen 21 pertsonatan eta Donostian 45 pertsonatan. Langabezia gehien murriztu diren eskualdeak Ezker Eskualdea (-223), Gobela (-104), Txorierri (-47) eta Enkarterriak (-43) izan dira. Langabezia hazkunde nabarmenenak Durangaldean (+329), Aialako Ibarrean (+116), Busturialdean (+107) eta Arratia-Zornotzan (+91) izan dira.

Hil honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek izan dira; Oion (% 19,99), Sestao (% 17,70), Lantziego (% 16,55), Balmaseda (% 15,99) eta Amurrio (% 14,99).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2019ko abenduan 38.2978 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 761 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,5k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 22.563 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 19,8 dira horiek. 15.734 langabek (% 13,8), berriz, langabezia prestazioa jaso-

tzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 36,7), Araban eta Bizkaian % 31,6koa eta % 32,6koa da, hurrenez hurren.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0.78 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz 4.24 hazi da.

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 61,3k (69.925 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 330 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan % 5,70 jaitsi da langabezia azken urtean. Azken urtean gehien murriztu den taldea izan da.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan % 0,87 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 4,20. Hilabete arteko bilakaera hoberena izan duen taldea izan da.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 20.082 dira, hau da, langabeen % 17,6. Talde hau irailean zehar % 0,43 hazi da, eta azken urtean % 2,73.

Azkenik, langabeen % 12,4k (14.152 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 0,41 hazi da langabezia azken hilabetean eta % 1,96 murriztu azken urtean.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,1 (18.435 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, ikusten da langabezia % 0,50 hazi dela atzerritarren artean, eta % 0,31 bertakoen artean.

Langabe atzerritarren % 34,7a Afrika iparraldekoak dira, % 21a Latinoamerikatik datoz, % 19,8 Europako Esparru Ekonomikotik, % 15a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,7, azkenik, Asiatik. Abenduan Europar Esparru Ekonomikotik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (+129); gutxien, aldiz, Latinoamerikatik etorritakoen artean (-120).

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan 34.579 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 1,08ko murrizketa). Guztira 3.163.605 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 0,34 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 2,41 hazi, Errioxan % 2,89 hazi, Kantabrian % 0,08 hazi eta Gaztela eta Leonen % 0,78 murriztu. Katalunian % 0,53 murriztu da eta Madrilen % 1,11.

Urte arteko erlazioan % 4,61 murriztu da langabezia EAEn, bigarren bilakaera onena Gaztela eta Leonen ondoren (-% 5,08). Estatuan % 1,21 murriztu da.

2019ko abenduan erregistratutako langabezia

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko abenduan

	abe-2019	aza-2019	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	51.168	49.397	1.771	3,59
EMAKUMEZKOAK	62.994	64.380	-1.386	-2,15
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	7.879	8.357	-478	-5,72
GIZONEZKOAK	4.161	4.285	-124	-2,89
EMAKUMEZKOAK	3.718	4.072	12	-8,69
25-44 URTE:				
GUZTIRA	48.080	47.416	664	1,40
GIZONEZKOAK	21.035	19.884	1.151	5,79
EMAKUMEZKOAK	27.045	27.532	-487	-1,77
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	58.203	58.004	199	0,34
GIZONEZKOAK	25.972	25.228	744	2,95
EMAKUMEZKOAK	32.231	32.776	-545	-1,66
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.509	2.521	-12	-0,48
INDUSTRIA	14.326	13.379	947	7,08
ERAIKUNTZA	8.295	7.908	387	4,89
ZERBITZUAK	75.457	75.904	-447	-0,59
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.575	14.065	-490	-3,48
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	18.722	18.655	67	0,36
BIZKAIA	65.117	65.108	9	0,01
GIPUZKOA	30.323	30.014	309	1,03
EAE	**114.162**	**113.777**	**385**	**0,34**

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.981	10,7%	-7	-0,18	-48	-1,19
Oarsoaldea	3.419	9,5%	36	1,06	-213	-5,86
Donostia-S.Seb.	7.246	8,2%	-45	-0,62	-432	-5,63
Donost.Mendebaldea	2.943	8,2%	79	2,76	-121	-3,95
Tolosaldea	1.935	8,4%	-8	-0,41	-122	-5,93
Urola Erdia	1.270	8,5%	63	5,22	-67	-5,01
Goiherri	1.588	7,6%	19	1,21	-64	-3,87
Deba Garaia	2.436	8,2%	66	2,78	-137	-5,32
Deba Behera	2.798	10,7%	62	2,27	-103	-3,55
Urola Garaia	1.100	9,2%	4	0,36	36	3,38
Urola Kosta	1.607	7,3%	40	2,55	-84	-4,97
GIPUZKOA	30.323	8,8%	309	1,03	-1.355	-4,28
Vitoria-Gasteiz	14.456	11,7%	-21	-0,15	-854	-5,58
Aialako Ibarra	2.326	12,3%	116	5,25	-98	-4,04
Arabar Errioxa	656	12,4%	-26	-3,81	-79	-10,75
Arabako lautada	669	9,1%	13	1,98	-4	-0,59
Gorbeia inguruak	258	5,6%	-17	-6,18	-34	-11,64
Arabako Ibarrak	386	8,0%	8	2,12	-23	-5,62
Arabako Mendialdea	96	6,5%	-4	-4,00	-5	-4,95
ARABA	18.722	11,4%	67	0,36	-1.070	-5,41
Gobela	4.623	8,9%	-104	-2,20	-152	-3,18
Txorierri	2.035	8,9%	-47	-2,26	-217	-9,64
Uribealdea	2.961	9,0%	-12	-0,40	-40	-1,33
Durangaldea	3.510	9,4%	329	10,34	-51	-1,43
Busturialdea	2.259	10,4%	107	4,97	-33	-1,44
Lea-Artibai	1.011	8,4%	43	4,44	-122	-10,77
Enkarterriak	2.035	13,1%	-43	-2,07	-145	-6,65
Arratia-Zornotza	1.531	8,9%	91	6,32	-12	-0,78
Arratia-Nerbioi	1.294	9,9%	-4	-0,31	-56	-4,15
Bilbo	22.301	13,3%	-194	-0,86	-1.171	-4,99
Ezkerraldea	16.929	13,6%	-223	-1,30	-901	-5,05
Ibaizabal	4.500	11,2%	63	1,42	-158	-3,39
BIZKAIA	65.117	11,7%	9	0,01	-3.087	-4,53
EAE	114.162	10,7%	384	0,34	-5.510	-4,60

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.